

Martin Ugalde 1921-2004

[Egile ezezaguna]

Berría, 2004-10-05: VII; IX; XI.

Carlos Garaikoetxea (EAEko lehendakari ohia)

"Nik neuk lagun mina galdu dut"

"Martinen heriotzarekin, Euskal Herriak abertzale eredugarri eta euskaltzale bikainenetako bat galdu duela uste dut. Eta nik neuk adiskide mina eta Eusko Alkartasuneko alderdikide garrantzitsua galdu dut. Martinek bere bizitzan izugarri lan egin zuen euskararen eta aberriaren alde, eta, horregatik, urte asko atzerrian bizi izan beharrean gertatu zen. Gainera, azken garai hauetan Espainiako epaileen arazo lotsagarriak jasan zituen. Martin beti gogoan izango dugu".

Imanol Murua (Gipuzkoako diputatu nagusi ohia)

"Gizon apartekoa zen"

"Gizon moduan apartekoa izanik, abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna barruan zeramatzan. Horien alde borrokatu eta sufritu beharra izan zuen. Oso gizon atsegin eta maitagarria zen. Beragan nire aitaren irudia ere ikusten nuen. Bere nortasun agiria abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna izan ziren, eta kontsekuente izan zen bere ideiekin beti. Tamalez, azken denboretan berari, emazteari eta familiari gezurrez beteriko injustizia egin diote. Abertzaleon eta euskaltzaleon omenaldi guztiak merezi ditu".

Ramon Labaien (Donostiako alkate ohia)

"Gure historiari zentzu berri bat eman dio"

"Martin Ugalde, aurren-aurrena, lagun bat izan da niretzat; bigarren, euskalduna; eta hirugarren, abertzale bat. Hiru gauza horiek niretzat gizon berezi bat egin dute. Martin Ugaldek meritu berezi bat izan du: gure historiari zentzu berri bat eman dio. Bere lanak horretan laburtzen dira, gure historiari zentzu berri bat ematea; ez nuke esango nazionala denik, baina gure herri kontzientzia esnatzen duen historiaren interpretazio bat egin du, eta horrek merezi du gaur eta betiko eskerrak ematea".

Xabier Kintana (Euskaltzaindiko idazkariordea)

"Gogo-bihotzetan iraunen du betiko"

"Martin Ugalde Orradre gerrako belaunaldiaren adibide eredugarrienetako bat izan da. Gerra zibilaren ondorioz bere familia zatikatzen ikusi zuen, erbestealdi luze eta mingotsa dastatuz. Gaztaro osoa Venezuelan eman ondoren, ez zituen horregatik bere euskal erroak inoiz galdu, eta euskara eta euskal gaiak landu zituen. Ezagutu dugun guztiok adiskide ona galdu dugu, solaskide atsegin eta umila, euskaltzale sutsua batez ere, gizontasunaren eta euskalduntasunaren eredu maitagarria. Goian bego. Gogo-bihotzetan ere betiko iraunen du".

Xabier Mendiguren Elizegi (Idazlea eta editorea)

"Euskarazko ipuingintza modernoaren aita da"

"Martinen ekarpena gutxienez hiru mailatan neur daiteke. Batetik, bere obra. Ipuingintza modernoaren aita bera izan zen ziur asko euskaraz, *Iltzailleak* liburuarekin. Hainbat liburu on egin zituen, bai ipuingintzan eta bai nobelan; *Itzulera baten historia*, adibidez. Literaturaz gainera, historia dibulgatzaile moduan garrantzitsua izan zen bere ekarria, eta berdin kazetaritzan eta beste zenbait arlotan. Beste maila batean, bultzatzaile izan zen bai Caracasko euskal etxean eta bai hemen. Hirugarrenik, zuzenean ezagutu ez zutenentzat ere, eredu da; alderdikerien gainetik euskaltasuna jarri zuen".

Jorge Gimenez (Euskal Editoreen Elkarteko presidentea)

"Bere sortzaile lana eskertzekoa izango da"

"Euskalgintzarentzat galera handia izan da, eta ez da bakarrik sustatzaile moduan egindako lanagatik, nahiz eta azken urteetan horregatik nabarmendu den gehienbat. Sorkuntzan ere aritu da, eta beti oso irizpide garbi eta propioekin. Nahi zuen Euskal Herriarekiko eta euskal kulturarekiko zuen zintzotasuna eta leialtasuna nabarmenduko nituzke. Horrek bizitzan arazoak ekarri zizkion, batez ere azken urteetan hainbaten jokabide ankerrak iraindu duenean. Orduan eta aurreko erasoetan erakutsi duen duintasuna ikaragarria da. Bere sortzaile lana eta duintasuna betiko eskertzekoak izango dira".

Tere Irastorza (Euskal Idazleen Elkarteko presidentea eta idazlea)
"Narratzaile on bat izan zen"

"Gaztea nintzela egokitu zitzaidan Ediciones Vascasen *Síntesis de la historia del País Vasco* liburua esku artean. Hura garrantzizkoa izan zen 1975 hartan Euskal Herria zer zen eta zer izan zen jakiteko. Beste liburu bat nabarmentzekotan, *Itzulera baten historia* nabarmenduko nuke; narratzaile on bat izan zela iruditzen zait. Euskaltzaletasuna abertzaletasunaren eta ideia politikoen gainetik eduki du lanak egiteko garaian. Penagarria da berak hainbeste nahiko zuen Euskal Herri bakezko eta independente bat ezin ikusi izana. Horren ordez, *Euskaldunon Egunkaria*-ren ixtea ikusi zuen".

Aingeru Epaltza (Idazlea)
"Euskadi idazle bat izan nahi zuen; lortu zuen"

"Alde anitzetatik begiratuta, pertsona gisa, euskaltzale gisa eta idazle gisa, gizon handi bat zen. Horrek, beharbada, idazle gisa euskal literaturari egin dizkion ekarpenak itzalpean utzi ditu. Baina hori ere azpimarratu behar da: euskal idazle izateko bere ahalegina. Erakutsia zuen idazle venezuelarra bazela, eta euskal idazle bat izan nahi zuen eta lortu egin zuen. Normalean adin batean, nire adinean momentu honetan, bizi bat egina zuenean, Venezuelako literaturan eta kazetaritzan norbait zenean, ia-ia hutsetik abiaturik bere buruari idazle izateko helburua jarri zion; eta lortu egin zuen".

Edorta Jimenez (Idazlea)
"Aspaldiko une gogorrena izan zen auzipetzea"

"Tamalez, bera ez nuen ezagutu pertsonalki, baina banuen hainbat gauza hitz egiteko berarekin. Franco hil ondorenean bere liburuak oso estimagarriak izan ziren, bai erdarazkoak eta baita erbestean egindako euskarazkoak ere. *Iltzailleak* liburuak erakarri ninduen, eta gero Lezo Urreiztietarena-k. Azkenengo urteetan bizi izan dudana unerik gogorrena Martin Ugalde auzipetu zutenekoa izan da. Horrek ikur edo sinbolo bihurtu du. Norbait konturatu zen bere garrantzia sinbolikoaz, eta zigor hori ezarri zion. Hori izan da euskaldunoi egin zaigun irain handia eta erantzuten jakin izan ez duguna".

Miren Azkarate (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua)
"Gaztetatik hil arte gizon konprometitua izan zen"

"Martin Ugalde idazle, euskaltzale eta kazetariaren konpromisoa nabarmendu behar da orain. Gazte-gaztetatik eta bere bizitzako azken urteetaraino berarekin eramane duen

konpromiso hori, bizitzan hainbat lekutara eta zereginetara eraman duena. Gazteendako zerbait uztekoan eta aipatzekoan Ugalde bezalako pertsona handiek herriaren alde izandako konpromisoa da orain azpimarratu behar dena".

Eusko Alkartasuna

"Euskal kulturaren erreferentzia izan da"

"Samina eta atsekabea adierazten dugu Martin Ugalde euskaltzale, kazetari eta alderdiko lagunaren heriotzagatik, eta familiari doluminak azaldu. Euskal kulturaren erreferentzia izan da, bizitza osoan herriarekin, euskararekin eta giza eskubideen defentsarekin konprometitua. *Egunkaria*-ko ohorezko lehendakaria euskarazko kazetaren aurkako kanpaina gogorraren jomuga izan zen. Exilio luzean Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde izan zen, eta gero *Egunkaria*-ren sortzaile".

Aralar

"Bizia herrigintzari eman dion pertsona galdu da"

"Gure dolumina azaldu nahi diegu Martin Ugaldereen senitarteko eta gertukoei haren heriotza dela eta. Euskalgintzan, kulturagintzan eta politikan, erbestean eta Euskal Herrian, bizi osoa Euskal Herriari eskaini dion pertsona baten galera izugarria dela azpimarratu beharrean gaude. Era berean, herrigintzan horrenbeste lan egin eta gero, azken urteetan, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutela-eta nozitu behar izan duen egoera salatzen dugu".

Mikel Arana (Ezker Batua)

"Mundu euskaldunarentzat galera handia da"

"Euskararen normalizazioan egindako lan handia nabarmendu behar da orain. Ugaldereen heriotza mundu euskaldunarentzat eta euskal kulturarentzat, oro har, galera handia da, alor horretan egin duen lanak erakusten duen moduan. 2002. urtean Euskaldun Unibertsalaren Saria jaso zuen gizonak bere azken urteetan *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera bizi izan zuen, fundatu eta hango ohorezko lehendakari izan zen egunkariaren itxiera".

Pernando Barrena (Batasuna)

"Abertzale guztien arteko elkarlana bultzatu zuen"

"Topikoa bada ere, gaurkoan gizon handi-handia hil zaigu Euskal Herrian. Martin Ugalde joan egin zaigu, baina gurekin utzi du bere bizitza osoko lekukotasuna; ez bakarrik literaturan edo euskalgintzan, nik abertzale moduan nabarmendu nahiko nuke: Ugalde beti izan da abertzale guztien arteko elkarlana bultzatu eta babestu nahi izan duen pertsona, eta hori da, nire uste apalean, egungo Euskal Herriak behar duen profila".